

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

2016 urteko kirol diru-laguntzak

2016ko ekainaren 24 egunean Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiz onartu da 2016 urterako kirol programen diru-laguntzetarako deialdiak egitea, 72.960 euro zenbatekoz, 2016 urteko aurrekontuko 06-3411-481.00 diru sailaren kargutan.

2016 urteko kirol jardueratarako diru-laguntza deialdia

1. Helburua.
2. Aurrekontuko zuzkidura.
3. Onuradunak.
4. Onuradunen betebeharrak.
5. Eskaerak eta dokumentazioa.
6. Epea.
7. Balorazio irizpideak.
8. Diru-laguntzen zenbatekoa eta kalkulua.
9. Zein organok eskumena duen eskaerak aztertu eta erabakita hartzeko.
10. Jakinarazpena eta ordaintzeko era.
11. Diru-laguntza ordainketaren gaineko bermeak.
12. Diru-laguntzaren muga.
13. Bateriaezintasunak.
14. Kontroleko bermeak.
15. Erabakiaren eraldaketa.
16. Diru-laguntzen justifikazioa. Obligazio eta betebeharrak.
17. Diru-laguntzaren galera.
18. Partzialki bueltatu beharra eta ez betetzeen graduazio irizpideak.
19. Zehapenak.
20. Garapen, interpretazio eta difusioa.

LEHENA. Helburua

Oinarri hauen helburua da arautzea eta erregulatzea Audio Udalak, bere Kultura, Kirolak eta Jaietako Arloaren bitartez, emango dituen diru-laguntzetara sarbidea eta iristeko aukera izatea lehia librearen arabidean. Aipatu diren laguntza horiek xederatuko dira 2016 urtean zehar Audio kirol ekintza eta programen antolamendua, gauzatzea eta egikaritzearen finantziatzaia, hala nola herriko klub eta kirolarien kirol praktika horrek dakartzkien gastuen finantziatzaia.

Diruz lagundu ahal diren gastuak izan dira, inolako zalantza barik, oinarri hauen arabera diruz lagundutako ekintza eta jardueraren izaerari erantzuten diotenak

Kirol izaerako ekintzak elkarrekin batera finantzatzeko laguntzak emango dira diru-laguntza kontzeptuan eta horiek era estuan lotuta egongo dira Arabako Lurralde Historikoan Diru-laguntza eta Transferentzien, otsailaren 7ko, 3/1997 Foru Araura, azaroaren 17ko 2003/83 Diru-laguntzen Lege Orokorrera eta Tokiko Korporazioen Zerbitzuetarako Erregelamendura eta aplikagarria dakioken legeri osagarria.

BIGARRENA. Aurrekontuko zuzkidura

Deialdi honen bitartez emandako diru-laguntza kopuru osoak ezin izango du inoiz ezta sekula gainditu aurreikusitako 72.960 euro zenbatekoa.

Zenbateko hori banatuko da ondoko jardueren multzo edota atal hauen arabera:

1. Era federatua kirola praktikatzen duten elkarte eta klubentzat diru-laguntzak: 47.840,00 euro.

2. Eskola zentroi diru-laguntzak: 3.450,00 euro.

3. Disfuntzioren bat duten pertsonekin lan egiten duten elkarte eta klubentzat diru-laguntzak 920,00 euro.

4. Laudion unean uneko kirol ekintza puntualen antolatzeke diru-laguntzak elkarte eta klubentzat: 3.450,00 euro.

5. Elkarte eta klubentzat diru-laguntzak igoera edo sailkapen faseetan 2014-2015 eta 2015-2016 denboraldietan edota Laudio herritik 100 kilometro baino urrunago izaniko txapelketetan gonbidatuta parte hartu izanagatik: 15.000,00 euro.

6. Kirolarientzat joan-etorrietarako beka: 2.300,00 euro.

1, 2 eta 3 ataletan ez bada banatu diru-laguntzaren ehuneko ehuna, soberako zenbatekoa pasatuko da banatzera aurrekontu hornidura gainditu duten eskaeren beste atalen artean. 4, 5 eta 6 ataletan ez bada banatu diru-laguntzaren ehuneko ehuna, soberako zenbatekoa pasatuko da banatzera aurrekontu zuzkidura gainditu duten eskaeren beste multzo eta atalen artean. Banaketa hori egingo da atal bakoitzeko hasiera kopuruarekiko proportzio eran.

Laudioko Udaleko 2016 urterako aurrekontuko 0600 3411 481.00 diru sailaren edo partidaren kargu sartuko dira gastuak.

Oinarri hauen objektu diren diru-laguntzak ematea, kreditu egokia eta nahikoa izatearen etendurazko baldintzaren mende egongo da. Era berean behin betiko onartua izan beharko da 2016ko maiatzaren 30eko Udaleko Udalbatzak hasierako onarpena jasotako 2016ko Laudio Udalaren Aurrekontua.

HIRUGARRENA. Onuradunak

Onuradunaren izaera edukiko du, jarduera sustatzen edo egiten duen banakako subjektu edo kolektibo orok.

Aurkez daitezke 1. ataleko diru-laguntzetara "Era federatua kirola praktikatzen duten elkarte eta klubentzat diru-laguntzak" herriko klub eta elkarteak bere kategoriaren batean urteko praktika federatua jasota duen diru-laguntza izenduna emateko diru saila 2016ko udal aurrekontuetan aurreikusita ez daukatenak.

"Eskola zentroi diru-laguntzak" 2. ataleko diru-laguntzetara aurkeztu ahal izango dira eskola zentro publiko edo pribatuak, edo, horien izenean, legez eraturako gurasoen elkarteak.

Aurkeztu ahalko dira 3. ataleko laguntzetara "diru-laguntzak disfuntzionalitate-dun pertsonekin lan egiten duten kirol elkarte eta klubentzat"; hau da, diru irabazi asmorik gabe

sortutako kirol elkarte eta erakundeak, helburutzat dutenean disfuntzionalitatedun pertsonen integrazioa.

Aurkeztu ahalko da 4. ataleko laguntzetara: "Laudion unean uneko kirol ekintza puntualak antolatzeke diru-laguntzak elkarte eta klubentzat" txapelketa edota bere klub bidez, EAEko eta Nafarroako federazioetako lizentzia federatua duten kirolariek parte hartzen duten frogaren bat antolatzen duen norbanako edo talde subjektu oro.

Aurkeztu ahalko da 5. ataleko laguntzetara: "diru-laguntzak kirol elkarte eta klubentzat, igoera, sailkapen edo txapelketako faseetan parte hartzeke Laudiotik 100 kilometro baino urrunago," edozein kirol elkarte edo klub, kirola era federatuan praktikatzeko duena.

Aurkeztu ahalko dira 6. ataleko laguntzetara: "Kirolarientzat joan-etorrietarako beka" Laudion erroldatutako kirolari federatuak gure udalerritik kanpoko klubetan jokatzeko dutenak, geure udalerrian kirol modalitate hori ez izategatik edo herriko klubak iritzi diolako ezin diola bere jokalariren kirol mailari erantzunik eman. Ezin izango dira laguntza honetara aurkeztu urteko 24.000,00 euro gordinetik gorako diru-sarrerak dituzten kirolariak, ez eta bere kirol jardueragatik soldata bat jasotzen duten pertsonak ere.

Onuraduna pertsona juridikoa denean, bere kontura eta izenean diru-laguntzaren emakida funtsatzen duten ekintza guztiak edo zati bat gauzatzeko konpromisoa hartzen duten onuradunaren kide bazkideek ere, halaber, onuradun izaera izango dute.

Nortasunik gabeko pertsona fisikoak edo juridikoak, berariaz jasoarazi beharko dute, hala eskaeran nola emakidaren ebazpenean, Elkarteko kide bakoitzak bere gain hartu dituen eta gauzatu dituen konpromisoak, hala nola horietako bakoitzagatik aplikatu beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa, zeinetan kontuan hartuko den, baita ere, onuradun izaera. Hori bada kasua, izendatu beharko dute pertsona bat elkarteko ordezkari bat edo ahalorde bakarra, elkarteari onuradun lege dagozkion betebeharrak bete ahal izateko ahalmen nahikoekin. Elkar-tea ezin izango da inola ezta ere desegin azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Oroko-rrako 39. eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio epea igarota eta pasatuta egon arte.

Gainera, kirol elkarte eta erakundeek bete beharko dituzte ondoko betebeharrak:

– Gizarte egoitza Laudion izatea eta bere jarduera osoa edo partziala udalerrin honetan gauzatzea.

– Legez eratuta egotea eta inskribatuta Eusko Jaurlaritzako Elkarte eta Erakundearen Erregistroan.

– Audio Udaleko Elkarteen Erregistroan inskribatuta egotea.

– Beraien programak eta aurrekontuak botere publikoen kontrolaren mende jartzea.

– Bermatzea gobernu organoen osaketan eta funtzionamenduan barne demokrazia izatea.

Halaber, laguntza horien onuradun izan ahal dira ere, gure udalerrian erroldatutako pertsona fisikoak, hala nola nortasun juridikoa duten udalerriko elkarteak eta taldeak.

Diru Laguntzen Lege Nagusiaren (azaroaren 17ko 38/2003 Legea) 13. artikuluan zehazten diren egoerak betetzen ez dituen pertsonak edo elkarteak ezin izango du onuradun izaera eduki.

LAUGARRENA. Erakunde onuradunen betebeharrak

Onuradunen betebeharrak hurrengo hauek dira:

a) Diru-laguntza funtsatu duen objektua, proiektua edo ekimena gauzatzeko, burutzeko eta betetzeko.

b) Justifikatzea Audio Udalaren aurrean baldintzak eta betebeharrak bete egin dituela, hala nola diru-laguntzaren emakida edo luperketa zehaztu duen ekintza eta jarduera egin eta gauzatu dela eta helburua bete egin dela.

c) Laudioko Udalak edo eskumena duen egiaztatzerako edo finantza kontrolerako edozein elkartek eskatzen duenean, egiaztatze jarduerak betetzeko prestutasuna izatea. Eskumena duten organoak nazionalak edo Europako Batasunekoak izan daitezke, eta aurrez aipatutako jarduerak egin ahal izateko behar den informazioa eman beharko zaie.

d) Diruz lagundutako jardueretarako bestelako diru-laguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak lortu direla ahal denik eta azkarren jakinarazi beharko zaio Laudioko Udalari.

e) Egiaztatzea ebazpen proposamena hartu aurretik tributu eta zerga arloan eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioak beteta eta egunean dituela, hala nola zuzenbide publikoko gainerako zorren eta bueltatu beharreko gaiengatik.

f) Kontu liburuak izatea, erregistro dilijentziatuak beteta eta gainerako dokumentuak behar den moduan auditatuta izatea. Kasuan kasuko, merkataritza legediak eta diru-laguntza jasoko duen sektorearen araberrako terminoetan egon beharko da dokumentazio guztia.

g) Jasotako funtsen aplikazio erabilera justifikatu eta egiaztatuko duen agiri guztiak kontserbatu egin behar dira, elektronikokoak barne, ere bai, egiaztatze eta kontrol jardueren objektu izan eta erabil daitezkeelako.

h) Publizitate egokia ematea diru-laguntzaren objektu eta xede diren programen, ekimenen, inbertsioen edo edozein motako jardueren finantziazioaren izaera publikokori. Beraz txertatu beharko du testu hau udalaren anagrama edo armariarekin batera "Babeslea: Laudio Udala" edo "Babeslea: Laudio Udala / Patrocina: Ayuntamiento de Llodio" diru-laguntzadun programaren ondorioko edozein karteletan, argazkitan edo beste komunikazio grafikotan. Publizitate horri eskaini behar zaion lekua izan beharko da, gutxienez ere, beste publizitate batzuei eskainitakoa bezainbesteko (beste horiek emandako diru-laguntzak Udalarena baino handiago direnean izan ezik). Halaber, berri emango da finantziazioaren izaera publikoaz propagandaren erabilera egiten bada ikus-entzunezko baliabidez. Gainera, kartelek eta publizitatek kontuan hartu beharko du hizkuntzen tratamendu elebidun ofiziala. Hori arautua dago Udal honetako Tokiko Gobernu Batzarrak 2002ko azaroaren 12an onartutako erabakian: "Udalak diruz lagundutako jardueren publizitate, argitalpen edo bestelako guztietan, bermatuko da, gutxienez, euskarazko bertsioaren presentzia."

Halaber, Udalaren diru-laguntza duten jardueren publizitatean oso arreta berezia jarriko zaio, hala hizkuntza nola erabilitako irudiak, sexistak ez izateari.

i) Jarduera garatu eta gauzatzeko legeek eskatutako izapidetze guztiak egitea.

j) Laguntza bueltatzeko arrazoiren batean izango balitz, jasotako diru-laguntza osoa itzuli beharko litzateke.

BOSGARRENA. Eskaerak eta dokumentazioa

Eskaerak aurkeztu beharko dira eskabide inprimaki normalizatuan Herriko Etxeko (beheko solairuan dagoen) Herritarren Arretarako Zerbitzuan edo Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideko Legean espezifikatutako formatan.

Eskaerak erantsita eraman behar du ondoko dokumentazio hauxe:

1) Eskaera sinatzen duenaren NAN, bere izenean edo elkarte baten ordezkartizan diharduelako. Eskaera egiten duena elkarteko presidente legeaz azaltzen den figuraz besteko pertsona batek ez bada, legeko presidentearen ziurtagiri baimentzailea aurkeztu beharko du, eskaera sinatzen duen pertsonari baimena emanez elkartearen izenean aritzeko.

2) Elkarte eskatzailearen IFZ (eskaera elkarte baten izenean egiten denean).

3) Elkarte ez badago inskribatuta edo alta emanda Laudioko Elkartearen Udal Erregistroan, bertan inskribatzeko eskaera, erantsi behar izanik Erakundeko Estatutuen fotokopia, Eusko

Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroan legeaz sortuta, eratuta eta inskribatuta dagoela egiaztatuko duen dokumentua, hala nola IFZ dokumentu egiaztatzailea.

4) Diru-laguntza ordaindu ahal izateko, eskatzailearen banketxe kontu zenbakia.

5) Aurkeztea ondoko ziurtagiri hauek: Zinpeko aitortpena:

– Ziurtagiria Udalarekiko eta Foru Ogasunarekiko tributu eta zerga obligazioen ordainketan eta Gizarte Segurantzarekin egunean izateari buruz, hala nola zuzenbide publikoko gainerako zorren eta bueltatu beharreko gaiengatik.

– Ziurtagiria diru-laguntzak bueltatzeagatik obligazioen ordainketan egunean izateaz.

– Ziurtagiria onuradun izaera lortzeko debekuetan sartuta ez egoteari buruz, azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/1993 Lege Orokorreko 13 artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan azaldutakoarekin bat.

Udalak, hala egoki baderitzo, eskatu ahalko du dagozkion ziurtagiriak aurkeztea.

6) Zinpeko adierazpena beste erakunde publiko edo pribatuei egindako diru-laguntza eskaerei buruz diru-laguntza eskatu den programarako. Diru-laguntza jaso dela edo ez dela jaso jakin bezain laster, Laudio Udalarari jakinarazi beharko zaio, hala bada kasua, diru-laguntzaren kopurua birdoitzearen ondorioetarako.

7) 3. atalerako eskaeren kasuan (kultur ekitaldietan parte hartzeko joan-etorriak), goian azaldu den dokumentazioaz gainera, aurkeztu beharko da antolatzaileek ekitaldian parte-hartzeko luzatutako gonbidapen idatzia.

Ez dira aurkeztu beharko administrazioak aurrez bere esku dituen dokumentuak, betiere eskatutako prozeduraren amaiera epetik bost urte igaro ez direnean eta adierazita badago dokumentazio hori zein erakundetan eta egunetan aurkeztu egin zen, Diru-Laguntzen Lege Orokorreko 23. artikuluan oinarrituta. Aurreikuspen horretatik salbuetsita daude iraungitze data duten dokumentuak, hala nola diren zerga betebeharretan egunean izateari buruzkoa, e.a.

1.etik 5. Multzo edo atalerako eskaeren kasuan, gainera dokumentazio hauxe:

1) Elkarte ez badago izena-emandak, inskribatuta edo alta emanda Laudio Udalararen Erregistroan, bertan inskribatzeko eskaera, erantsi behar izanik Erakundearen Estatutuen fotokopia, Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroan legeaz sortuta, eratuta eta inskribatuta dagoela egiaztatuko duen dokumentua, hala nola IFZ dokumentu egiaztatzailea.

2) Diru-laguntza eskatzen duen ekintza eta jardueren programa, barne hartuta:

– Jarduera horiek lortu nahi dituzten helburuak

– Jarduera bakoitzerako aurrikusitako lekua, data eta iraupena

– Jarduerak zenbat pertsona xede onuradun eta hartzaile edukiko duen eta jardueraren xede eta jomuga diren pertsonak

– Euskararen erabilera.

– Aurrekontu zehaztua diru-laguntza eskatzen diren ekintzak eta jarduerak gauzatzeko diru-sarrera eta gastuena. Helburua da diru-laguntzaren kalkuluan soilik hartzea lagungarriak diren gastuak; horiek izango dira, inolako zalantza barik, elkarrearen izaerari erantzuneko diotenak.

– Aktibitateak gauzatzeko baliabide pertsonal, tekniko eta materialak.

– 5. ataleko diru-laguntza eskaeren kasuan, txapelketa, lehiaketa, edo antzekoetan parte-hartzeko Laudiotik 100 kilometro baino urrunagora joan beharra badute, aurkeztu beharko dute ekitaldi horren antolatzaileen gonbidapen idatzia.

6. atalerako, aurkeztu beharko da, gainera, ondoko dokumentazio hauxe:

1) Praktikatutako kirol modalitateko klub bat Laudion baldin badago, klub horrek luzatu eta eskaini beharko du ziurtagiri arrazoitua eskatzailearen kirol garapenerako udalerritik kanpoko beste klub edo talde batean jokatzearen komenigarritasunaz.

2) Ziurtagiria kirolaria jokatzeko ari den klubak eskainia, urteko trebakuntza eta entrenamendu egun kopuruaz (zenbat egun astean, bider denboraldiko zenbat aste).

3) Ziurtagiria kirolaria jokatzeko ari den klubak eskainia, adieraziz ez dutela kobratzen inolako dietarik ez eta soldatirik.

4) Urteko diru-sarreraren ziurtagiria.

SEIGARRENA. Epea

Oinarri hauetan arautzen diren laguntzak lortzeko eskaerak aurkezteko epea ALHAOn deialdia argitaratutako biharamunean egunean hasiko da, eta argitaratze hori egin denetik hilabetera bukatuko da. Kasua bada, epea balioudun eguna ez denean bukatzen dela, hurrengo lehen balioudun egunera arte atzeratuko da eragin eta ondorio horietarako.

Aurkeztu den dokumentazioan irregulartasunik edo zerbait falta dela antzeman bada, eskainiko da hamar balioudun eguneko epea hori zuzentzeko, aginduzko deia jaso izan denetik hasita.

Behin epea bukatu denean, eta akatsa zuzendu ez bada, artxibatu egingo da eta administrazio baliorik gabe geratuko da.

ZAZPIGARRENA. Balorazio irizpideak

Laguntzak esleitzeko orduan kontuan hartuko dira ondoko irizpide hauek:

1 atalerako: "Era federatua kirola praktikatzen duten elkarte eta klubentzat diru-laguntzak"

a) Erakunde eskatzaileak frogatu eta erakutsitako jarraikortasuna. Banatuko da proportzionalki, atal honetako aurrekontuko kopuruaren ehuneko 10 bat lortutako puntuazioaren arabera oinarrituta; gehienez ere hogeit hamar puntu emango dira: proposatutako programa gauzatzera doan kirol arloan erakunde eskatzailea aritutako urte eta ekitaldi bakoitzeko lau puntu.

b) Kirol federatua sustatzea. Ehuneko 30a banatuko da, federazio-lizentzien ordaindutako guztirako zenbatekoan eta justifikatua oinarria hartuta. (Eskaera aurkezte unean, oraindik ordain izan ez balitz, horien federazio kostuen ziurtagiria aurkeztuko da)

c) Gauzatu beharreko jardueren sustapena. Ehuneko 45a banatuko da, diru-laguntza jaso duen urte ekitaldian gauzatutako jardueretarako. Ondoko era honetan banatuko da:

- ehuneko 5a banatuko da proportzionalki inolako udal laguntza motarik jasotzen ez duten elkarten artean, bai udal instalazioen lagatzeagatik edo erabileragatik, areto sozialak izan ezik, eta horien mantentze-lana, bere jarduerak antolatze bitarteko teknikoak eta materialak barne.

- ehuneko 40a banatuko da, jarduerak gauzatzegatik defizitean oinarrituta, aurrekontutik kenduta jada foru-laguntzak eta udalak aurreikusitakoak.

d) Emakumeek kirola egitearen sustapena. Ehuneko 5a banatuko da proportzionalki, lortutako puntuazioaren arabera, emakumeen federazio fitxen zenbatekoan oinarrituta. Fitxa bakoitzeko puntu bat emango da.

e) Haurren eta gazteen kirolaz egiten den sustapena. Banatuko da proportzionalki, 18 urtez beherako kirolarien federazio fitxen zenbatekoan oinarrituta. Fitxa bakoitzeko puntu bat emango da.

2. atalerako: "Eskola zentroi diru-laguntzak"

Kontuan hartuko den irizpide bakarra izango da eskaera aurkeztu duten eskola zentronen zenbatekoa. Unitate bakar gisa hartuko da zentroa eta bertako IGEa.

Fitxa bakoitzeko puntu bat emango da.

3 atalerako: "Disfuntzioaren bat duten pertsonekin lan egiten duten elkarte eta klubentzat diru-laguntzak"

a) Pertsona bakoitzeko jarduera orduen zenbatekoa urtean.

0,01 puntu emango da jarduera ordu bakoitzeko.

b) Jarduera edo ekintzan parte-hartzen duten pertsonen zenbatekoa.

0,5 puntu emango da ekintzan parte-hartzen duen pertsona bakoitzeko.

4. atalerako: "Udalerrian unean uneko kirol ekintza puntualen antolamendua"

a) Ekintza eta jarduera bideratuta egotea euskal kirol tradizionala berreskuratu eta sutatzera.

10 puntu emango zaizkie helburu horretara bideratutako proiektu guztiei; euskal kirol tradizionala legez ulertzen da Euskal Herrian era diferentziatuan garatu eta gauzatu izan den kirol modalitate oro.

b) Proposatutako programako parte-hartzailegoa izatea ahal denik eta zabalena.

20 puntu emango zaizkie publiko guztiei zuzendutako ekintzei (haur, gazte, heldu eta adinekoak). Ekintza zuzenduta ez doan publikoaren sektore bakoitzeko 20 puntuotatik ehuneko 25a kenduko da.

Parte-hartzaileek eduki behar dutenean praktikatuko den kiroleko erregelak ezagutze hutsaz gainera aldez aurretiko ezagutza mota ezberdinen bat edo federazioko txartela edo lizentziaren bat behar dutenean, lortutako puntuazioari ehuneko 50 kenduko zaio.

c) Talde antolatzaileak, eskarmentua izatea eta egonkortasun frogatua.

Elkarteak erakutsitako ibilbidea, jarraipena eta egonkortasuna eta ekitaldiaren tradizioa. Horretarako 4 puntu emango dira, gehienez ere 20 puntu arte, aurkeztutako arlo berean egindako ekintza eta jarduera bakoitzeko. Ekitaldiak gauzatu, burutu eta egin izanaren justifikazioa egingo da prentsako mozketak fotokopiak, kartelen kopia, edo horiek egin izanaren froga klarua eduki ahal izateko beste edozein dokumentu aurkeztearen bidez.

d) Ekitaldia, kalitatezkoa izatea eta proiektio sozialekoa.

10 puntuko puntuazioa emango zaie proiektuei, euren aurkezpenean era koherentean jasotzen badute zein harreman dagoen proposatutako ekintza eta lortu nahi dituzten helburuen artean, hala nola markatutako helburu horien lortze gradua analizatzeko erabiliko dituzten markadoreak.

10 puntu arteko puntuazio emango da, aurreko edizioko parte-hartzaileen zenbatekoaren arabera edo, 1. edizioa izatekotan, antolatzaileen aurreikuspenen arabera.

3 puntu, gehieneko 15 bertaratu/parte-hartzaile itxaroten dituzten proiektuetarako.

4 puntu, gehieneko 15-30 bertaratu/parte-hartzaile artean itxaroten dituzten proiektuetarako.

5 puntu, gehieneko 31-50 bertaratu/parte-hartzaile artean itxaroten dituzten proiektuetarako.

6 puntu, gehieneko 51-100 bertaratu/parte-hartzaile artean itxaroten dituzten proiektuetarako.

7 puntu, gehieneko 101-300 bertaratu/parte-hartzaile artean itxaroten dituzten proiektuetarako.

8 puntu, gehieneko 301-600 bertaratu/parte-hartzaile artean itxaroten dituzten proiektuetarako.

9 puntu, gehieneko 601-1000 bertaratu/parte-hartzaile artean itxaroten dituzten proiektuetarako.

10 puntu, gehieneko 1000 bertaratu/parte-hartzaile baino gehiago itxaroten dituzten proiektuetarako.

e) Gure udalerriko kirol beharizanei erantzungo diena.

10 puntuko puntuazioa emango zaie gure udalerrian dauden kultura gabeziatariko batekin lotura argudiozko era argian justifikatuko duten memorien proiektuei.

f) Erakunde sustatzaileak garatu dituen proiektu eta ekimenen arrakasta ona.

5 puntu emango zaizkie azken hiru urteotan aurkeztutako programarekin asebetetzeko eran konplitu izan dituzten ekitaldiei, hala ekonomikoki, nola makatutako helburuekiko, eta horien garapenean ez dadila gertatua izan inolako gorabehera nabarmenik taldeari egotzi ahal zaiona.

g) Organizazioek egin duten ahalegina ekonomia ekarpenak lortzeko; gehiago puntuatu dute duten gastua Udalari eskatutako diru-laguntza baino askoz ere txikiagoa duten elkarteek.

Xede horretarako, kontuan hartuko da eskatutako diru-laguntzak islatzen duen proportzioa, ekitaldiko aurrekontu osoarekiko, ehuneko hainbatean adierazita.

Ehuneko 20a: berdin edo gutxiago (50 puntu)

Ehuneko 20,01a eta ehuneko 40a artean (40 puntu).

Ehuneko 40,01a eta ehuneko 60a artean (30 puntu).

Ehuneko 60,01a eta ehuneko 80a artean (20 puntu).

Ehuneko 80,01a eta ehuneko 100a artean (10 puntu).

h) Diru-laguntza eskatzen den jai ekitaldia osagarria izatea Udalak antolatutako programarekin edo udalaren interesekoa izatea.

5 puntu emango zaizkie ekitaldiei, baldin eta udalak berak antolatzeko zailak suertatzen baizaizkio, zuzenduta dauden publikoaren sektoreagatik, ekitaldi motagatik edo beharrezko duten antolamendu motagatik.

i) Euskararen erabilera sustatzea.

15 puntu emango dira osorik euskaraz gauzatuko diren ekitaldietarako eta 10 puntu, euskaraz eta espainolez direnean.

j) Emakumeek kirola egitearen sustapena.

15 puntu emango dira emakumeek soilik parte hartzen duten jardueretarako eta 10 puntu, jardueran sexu biek parte-hartzen dutenean.

k) Haurren eta gazteen kirolaz egiten den sustapena.

15 puntu emango dira 18 urtez beherako parte-hartzaileak dituzten jardueretarako eta 10 puntu, 18 urtez beherakoek, beste adin batzuetakoekin batera parte-hartzen dutenean.

5. atalerako: "Igoera, klasifikazio faseetan edo txapelketan parte-hartzeko gure eskualdetik kanpo"

a) Zenbat kilometro egin behar diren igoera-fase edo sailkapen frogan parte-hartzearen ondorioz. 0,1 puntu emango da, egin beharreko km bakoitzeko.

b) Balioztatuko da klubak edo elkarteak egin duen ahalegina ekonomi ekarpenak lortzeko; gehiago puntuatu dute Udalak emaniko diru-laguntza baino nahikoa gastu gutxiagoa duten aurrekontuek.

Eskatutako diru-laguntzak islatzen duen proportzioa, ekitaldiko aurrekontu osoarekiko, ehunekoetan adierazita.

Ehuneko 20a: berdin edo gutxiago (50 puntu)

Ehuneko 20,01a eta ehuneko 40a artean (40 puntu).

Ehuneko 40,01a eta ehuneko 60a artean (30 puntu).

Ehuneko 60,01a eta ehuneko 80a artean (20 puntu).

Ehuneko 80,01a eta ehuneko 100a artean (10 puntu).

6. atalerako: "Kirolarientzat joan-etorrietarako bekak"

a) Zenbat kilometro egin behar dituen trebakuntzak eta entrenamenduak egiteko denboraldi bakoitzean zehar. 0,1 puntu emango da, egin beharreko kilometro bakoitzeko.

b) Kirolariaren diru-sarrerak: Ezin dituzte aipatu diren diru-laguntzak lortu, urteko 24.000 euro gordinetik gorako diru-sarrerak dituzten kirolariek, ez eta bere kirol jardueragatik soldata bat jasotzen dutenek ere.

ZORTZIGARRENA. Diru-laguntzen zenbatekoa eta horien kalkulua.

1. Diru-laguntzen zenbatekoa.

a) Gehieneko diru-laguntzak jarduera batendako, ezin gaindi dezake jarduera horren defizita ez eta eskatutako zenbatekoa ere.

b) Martxoaren 25eko 44/2014 Dekretua betearazi behar dela iritzita. Bertan araututa dakar ekitaldi publikoak egiteko eskatu nahitaez eskatu beharreko erantzukizun zibileko aseguruak, ekitaldi antolatzaile orok erantzukizun zibileko aseguruak kontratatu beharra duenez, eskatzaile orori bermatuko zaion diru-laguntza berdina izango da bere kostuan, gutxienez ere, aipatu den dekretuan eskatutako betebeharrekin betetzeko adinako aseguru kostuarekiko; puntu honetako a) atalean betetzen baldin bada.

c) Behin aurkeztutako eskaera bakoitzari esleitura erantzukizun zibileko aseguru gastuari dagokiona, oinarriotako zazpigarren puntuko balorazio irizpideak aplikatuko dira, lortutako puntuazioan oinarrituta, eskaera bakoitzari dagokion gainerako diru-laguntza hondarra kalkulatzeko. Banaketa era proportzionalan egingo da aurkeztu eta onartutako eskaeren artean.

d) Defizita kalkulatzeko ez da kontuan hartuko luntzek edo bazkari herritarrek sorrazitako diru-sarrera eta gasturik. bakarrik onartuko dira herrikoak ez diren hizlari edo parte-hartzaileendako bazkari gastuak, menuko gehieneko 20,00 euro gastuz.

e) Ez dira kontuan hartuko dietak diru-laguntzaren onuradunei (eskatzaile, elkarte eskatzaileko kide eta horien senitartekoei), ezta beste edozein gastu programa gauzatzeko nahitaezko eta ezinbestekoa ez dena.

f) Ez da kontuan hartuko inolako oparirik antolatzaileei edo hizlariei eginikoa.

g) Joan-etorri gastuak kontabilizatuko dira kilometroko 0,29 euroko gehieneko kostuz. Ez da onartuko erosketak egiteko joan-etorriak, horiek Laudion egin ahal badira.

h) Bosgarren ataleko diru-laguntzetan, kluba eta urteko gehienekoak sekula ezin izango du gainditu 5.000,00 euroren kopurua.

i) Seigarren ataleko diru-laguntzetan gehieneko horrek ezingo du gainditu zenbateko hauxe: 1.000,00 euro kirolari bakoitzeko edo klub edo elkarte berean jokatzeko duten kirolarien zenbateko artean zifra hori banatzearen ondoriozko kopurua.

BEDERATZIGARRENA. Azterketa, erabakia eta eskumena duten organoak

Urteko kirol programetarako aurkeztutako diru-laguntza eskaerak, oinarri hauetan zehazten diren helburuak eta betebeharrak betetzen badituzte, banaka aztertuko dira Kultura, Kirol eta Jaietako Arloan.

Aurkeztu den dokumentazioan irregulartasunik edo zerbait falta dela antzeman bada, hori zuzentzeko eskainiko da hamar baliodun eguneko epea, aginduzko deia jaso izan denetik hasita. Halaber, hamar baliodun eguneko epea ere eskura izango da, prozeduran zehar, Audio Udalak eska dezakeen dokumentazio edo txosten osagarriak aurkeztu ahal izateko. Bi kasuetan, epea amaituta, ez bada eskaera zuzendua izan edo eskatutako dokumentazioa entregatua izan, artxibatu egingo da eta administrazio balio gabe geratuko da.

Aurrez azaldutakoa eta kontuan izanda deialdi honetako zazpigarren oinarria, prestatuko da dokumentu bat aurkeztutako eskaerei buruzkoa, bertan adieraziz onartuak ala baztertuak izan diren eta zortzigarren oinarriko formulak eta irizpideak kontuan hartuta eta aplikatuta dagozkion balorazioak. Hori egingo dute Kirola, Kultura eta Jaietako Arloko teknikariek. Balorazio horiek bidaliko zaizkio Balorazio Epaimahai bati. Hori osatutako dute Kultura, Kirolak eta Euskarako Osoko Gaietarako Informazio Batzordeko kideek.

Balorazio Organoaren txostena eta espedientea aztertuta, Kultura, Kirolak eta Jaiak Arloko zinegotzi ordezkariak ebazpen edo erabaki proposamena formulatuko dio Tokiko Gobernu Batzarrari. Horrek bere baitan eduki behar du hau:

- Diru-laguntzaren emakida proposatzen den eskatzaileen zerrenda.
- Zenbateko espezifikoa eta diru-laguntzaren helburua eta xedea.
- Espezifikatzea ebaluazioa eta diru-laguntza emateko jarraitu diren irizpideak.

HAMARGARRENA. Jakinarazpena eta ordaintzeko era.

Tokiko Gobernu Batzarrak behin betiko ebazpena onartu ostean, eskaera-egile guztiei bidaliko zaie horren jakinarazpena. Ebazpena arrazoituko da eta, edozein kasutan, hartuko den ebazpenaren oinarriak eta funtsak egiaztatuta geratu beharko dira. Bertan azaldu behar da diru-laguntzaren emakida jaso duen eskatzailea edo eskatzaileen zerrenda eta gainerako gaitzetsitako edo ez onartutako eskaerena ere. Kasua bada, erabakia diru-laguntza ematearen aldekoa dela, ebazpenean jasoarazi egingo dira laguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko era, diru-laguntza ematen deneko baldintzak eta hori onartzeko eta diru-laguntza justifikatzeko epea agertu beharko dira, zein izango baita, gehienez ere, jarduera amaitu den momenturik hilabetera, ezin izanik gainditu, edozein kasutan ere, 2017 urteko urtarrilaren 20 eguna.

Diru-laguntza horietarako, zehazki, ordaintzeko era hauxe izango da: diru-laguntza zenbatekoaren ehuneko 100a ordainduko da behin betiko erabakia onartzeko unean.

Erabakia hartu eta jakinarazteko gehieneko epea 2 hilekoa da. Epea hasiko da zenbatzen dagokion deialdia argitaratuta azaltzen denetik, Balorazio Batzordeak berak horren eragin eta ondorioak beste atzeragoko eta beranduagoko egun batera atzeratzen ez baditu.

Diru-laguntza emakidaren ebazpenak administrazio bideari amaiera emango dio.

Gehieneko epea iraungi bada eta inolako ebazpenik ez bada jakinarazi, administrazio isiltasunaz, interesatuek ulertu behar dute euren eskaera ez dela onartua izan.

Oinarri hauetan finkatutako irizpideak ezarrita, Udalak beretzat gordetzen du eskubidea aurkeztutako proiektu guztiei diru-laguntzak ez emateko, dela zenbateko osoan edo dela zenbateko partzialean, edo, hala bada kasua, deialdia hutsik aitortzeko.

Deialdi honen eta honetatik eratorritako jardueren kontra egiteko aukera dago, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideko Legeak (azaroren 26ko 30/1992 legea) eta 4/1999 Legeak -aurrekoa moldatzen duena- esaten dutenari jarraituta.

HAMAIKAGARRENA. Berma diru-laguntza kontuan ordaintzeko

Kontuan hartuz Diru-laguntzen Lege Orokorreko azaroko 17ko 38/2003 Legeko Erregelamendua onartu zuen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko 42. artikulua, non erabakita

datozen bermea eratu beharraz salbuetsi ahal diren kasuak, oinarri hauek araututako diru-laguntzen onuradunei ez zaie berme hori aurkeztu beharrik exijituko.

HAMABIGARRENA. Diru-laguntzaren muga

Deialdi honen bidezko, diru-laguntza guztien orotarako zenbatekoak, ezingo du inoiz gainditu onuradunak gauzatuko duen ekintza edo jardueraren gastua.

Balorazio Organoak berraztertu ahal izango du, behin ezagututa beste erakunde batzuen laguntza osagarrien ekarpenen bitartez gastuaren finantziazioa, hala nola, hala bada kasua, beste diru-sarrera batzuk, halako moduz ezen horien zenbatekoa behin betikoa izanik, gastuen eta diru-sarreraren azken kitapenaren emaitza defizitarioa suertatzen bada, hori kontraesanean egon barik zortzigarren oinarrian zehaztutako ehunekoein.

HAMAHIRUGARRENA. Bateriaezintasunak

Laguntza hauen emakida bateraezina izango da beste edozein diru-laguntza mota lortzearekin; kenduta Laudio Udaleko Arlo honek ala beste batzuek eman ditzaketen beste batzuk, salbu-eta hala era batera erabaki izan denean edo emakida egin aurretik balorazio organoak horren berri izan duenean; hau da, programa berak, bakarrik jaso ahalko du bi diru-laguntza ezberdin Udaletik, berariazko era adierazian Udalak hala baimentzen duenean. Hori bada kasua, eta behin ezagututa beste udal arlo batek emandako zenbatekoa zein den, oinarri hauen bitartez emandako diru-laguntzaren doitzeari ekin ahal zaio, hasiera batean emaniko laguntzaren ehunekoa mantentzeko zenbatekoa nahikoan gutxituta.

Zinpeko aitorpena: helburu berdinerako beste finantzazio bide edo iturri batzuk dauden ala ez. Hala bada kasua, adierazi beharko da zenbatekoak diren eta erabakiaren zain dauden diru-laguntzarik eskaerarik dagoen ala ez zehaztu beharko da. Lortutako diru-laguntza ezberdinen batura guztiaren zenbatekoa ekintza edo jarduerarako onartua izan den aurrekontua baino handiagoa denean, eman beharreko laguntza gutxitu egingo da dagokion soberakinaren arabera.

Oinarri honetan araututako diru-laguntzen zenbatekoa ezin izango da sekula izan halako zenbatekoa ezen, isolatuta edo beste diru-laguntza batzuekin batera, diru-laguntza jaso duen programaren kostua gaindituko duen bestekoa.

HAMALAU GARRENA. Kontrol bermeak

Diru-laguntza ematen duen organoak beharrezkoak ikusten dituen administrazio kontrolak eta ikuskaritzak egin ahal izango ditu, aurkeztutako dokumentazioko datuak egiazkoak diren edo diru-laguntza jaso ahal izateko jarritako eginbeharrak betetzen dituen egiaztatzeko.

Ikuskaritzan laguntzeko betebeharra du onuradunak, eskatutako datuak emanda eta, behar izanez gero, jarduerak egiten diren lokaletara sarrera erraztuta.

HAMABOS GARRENA. Ebazpena aldatzea

Diru-laguntza bat emanda, onuradunak jakinarazi beharko dio Laudio Udalari horren egikaritzapenean, proposatutako ekintzetan, aurrekontuan, e.a., gerta litekeen edozein aldaera, bai aldaera hori justifikatzen duten inguruabarrak ez direlako onuradunaren borondatezkoak izan, bai diru-laguntza emateko orduan kontuan izan ziren baldintzak, elementuak edo inguruabarrak aldatuta geratu direlako.

Aldaketen berri eman eta gero, baldin eta horiek eman beharreko diru-laguntzaren guztirako zenbatekoan eraginik edo ondoriorik balute, Tokiko Gobernu Batzarrak, Balorazio Organoaren txostena jaso ostean, eta hilabeteko epe baten barruan, nahitaez berri emango dio idatziz onuradunari egindako berrikusketaz, adieraziz ebazpen berrian diru-laguntza emakidaren zenbatekoa eta baldintzak berriak. Epe hori igaro ostean Laudio Udalak ez badio erantzunik eman berrikusteko eskaerari, ulertuko da eskaera hori ez dela onartua izan.

HAMASEIGARRENA. Diru-laguntzaren kitapena. Betebeharrak

Justifikazio kontua aurkeztea da laguntza onuradunaren betebeharrak eta obligaziozko ekintza, eta hor sartu behar dira aitortzen egiten duenaren erantzukizunpean, laguntzaren objektua bete den ala ez egiaztatzea frogatuko duten gastu agiriak eta justifikanteak. Gainera, jarduerak finantzatutako izan direnean, Audio Udalaren diru-laguntzaz gain, funts propioekin edota beste diru-laguntza edo baliabideekin, kreditatu eta egiaztatu beharko da horien zenbatekoa, nondikakoa -jatorria- eta funts horien benetako aplikazioa diru-laguntza jaso duten ekintza eta jardueretara.

Diru-laguntza justifikatzeko,

1) 1.etik 5.erako ataletan, onuradunak aurkeztu beharko du dokumentazio hauex:

1.1. Egindako jardueraren memoria.

1.2. Gastu eta diru sarreraren likidazio kitapen zehatza.

1.3. Faktura, ordain-agiri originalak edo egindako gastua arrazoitzen duten agirien fotokopiak. Merkataritzako trafiko juridikoan edo administrazio eraginkortasuna izan beharko dute aurkeztutako fotokopiatutako agiriek.

1.4. Aurkeztutako fakturak ordaindu egin izanaren egiaztagiria eta frogak.

1.5. Diru-laguntza eman zenean zehaztu zen helburua bete dela egiaztatzen duen adierazpena.

1.6. Aktibitatea ezagutzera emateko erabilitako kartel, foileto, e.a. en ale bat edo taldeak jarduera hori ezagutzera emateko izan duen parte-hartzeaz. Ekintza edo jarduera ezagutzera eman izan deneko kartel, esku-orri, e.a.en ale bat.

1.7. Zinpeko aitortpena: diru-sarrera eta gastuen kitapenean azaltzen diren laguntza horiek izan dela jasotako bakarrak eta diru-laguntza eskaeran azaltzen ziren eta eskatutako beste batzuk ukatuak izan zaizkiola.

1.8. Gomendagarria da, gauzatutako aktibitate bakoitzeko bi argazki aurkeztea.

1.9. Joan-etorri gastuetarako diru-laguntza jaso den kasuetan, pertsona partaideen izenen zerrenda, bakoitzaren NANaz eta dagokion sinaduraz.

Justifikaziorako dokumentazioa aurkeztu beharko da hilabete epe barruan, diru-laguntza jaso duen jarduera amaitu denetik hasita edo diru-laguntzaren emakidaren berri jasotzen duen egunetik hasita.

Betebeharrak hauetariko bat edo batzuk ez betetzeak emaniko diru-laguntza baliorik gabe utz dezake.

2) 1.etik 6.erako ataletan, onuradunak aurkeztu beharko du dokumentazio hauex:

– Zinpeko aitortpena, urtea amaitzerakoan, diru-laguntza arrazoitu zuten gorabehera eta inguruabarrak aldatu ez izateaz.

Justifikaziorako dokumentazioa aurkeztu beharko da hilabeteko epe barruan, diru-laguntza jaso duen jarduera amaitu denetik hasita edo diru-laguntzaren emakidaren berri jasotzen duen egunetik hasita.

Betebeharrak hauetariko bat edo batzuk ez betetzeak emaniko diru-laguntza baliorik gabe utz dezake.

HAMAZAZPIGARRENA. Diru-laguntza galtzea

Diru-laguntzen erakunde onuradunek ez balute beteko beherako zehazten diren baldintzen eta betebeharren arteko edozein, diru-laguntza proposatu zuen Balorazio-Organoko berak

proposatuko dio Kultura, Kirolak eta Jaietako Arloko zinegotzi ordezkariari eta Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrari, erabakitzeke, eta gauzatutako bete gabetzeen larritasunaren arabera, jasotako zenbateko guztia edo zati bat bueltatu beharra, gehi diru-laguntza ordaindu egin zeneko momentutik hasitako berandutza korrituak, Audio Udalaren konturako transferentzia edo intsuldaketa bitartez.

lido eta zentzu horretako kasuak hauek dira:

- Eskieran eta aurkeztutako dokumentazioan formulatutako datuak faltsutzeagatik.
- Ez betetzea osorik edo zati batean diru-laguntza ematea funtsatu zuen ekintzaren helburua.
- Ez betetzea egiaztatze edo justifikazio obligazioa edo justifikazioa ez-nahikoa izatea.
- Diru-laguntzaren zenbatekoak, isolatuta edo beste diru-laguntza publiko edo pribatuekin batera, onuradunak garatu beharreko aktibitate onuradunaren kostua gailentzea.
- Ez berri ematea ahal denik eta azkarren Audio Udalari beste diru-laguntza publiko edo pribatu batzuk eman izan, nahiz eta jadanik Audio Udalak onartuta eduki dagokion kitapena.
- Eta, oro har, ez betetzea Oinarri hauetan erabaki eta finkatutako beste edozein betebeharrak edo obligazio, hala onuradunentzat nola kitapenetan aurkeztu beharreko dokumentaziorako.

HAMAZORTZIGARRENA. Diru-laguntzen zati bat bueltatzea eta bete gabetzeen graduazio irizpideak

Balorazio Organoak proposatuko du diru-laguntzaren zati bat bueltatzea, ekintza gastuen behin betiko kitapena txikiagoa izan denean aktibitatearen gastuen hasierako aurrekontuaren aldean eta onuradunak alde aurretik ez duenean eskatu hori berrikustea. Bueltatu beharrekoaren zenbatekoa kalkulatzeko, Balorazio-Organoak aplikatuko du aurkeztutako kitapena proportziozko irizpideak erabilita.

HEMERETZIGARRENA. Zehapenak

Balorazio-Organoak, alde aurretik dagokion espedientea zabaldua, bete gabetzeen larritasunaren balorazioa egokia egin ostean, Kultura, Kirolak eta Jaietako zinegotzi ordezkariaren bitartez, Tokiko Gobernu Batzarrari proposatuko dizkio azaroaren 17ko 38/2003 Legeko II. Kapituluan, IV. Tituluan, jasota datozen hala diruzko nola ez-diruzko zigorrak eta isunak eta nahitaez eta ezinbestean diru-laguntzak bueltatu behar diren obligazioaz aparte direnak. Nolanahi, zehapen, zigor edo isun bat jartzeak, beti era batera dakar diru-laguntzaren guztirako eta orotarako diru-zenbatekoa bueltatzea.

Oinarri hauetan exijitutako betebeharrak bete gabetze kasuetan, baina legean edo horren ordenantza arautzailean erregulatu gabekoetan, bete gabe utzitako betebeharrak bakoitzeko emandako diru-laguntzari ehuneko 5a gutxituko zaio, bueltatzeko.

Jasotako diru-zenbatekoak, gehi berandutza korrituak, bueltatu behar diren ordezkari erantzuleak izango dira, elkarte onuradunen administratzaileak edo legezko ordezkariak.

HOGEIGARRENA. Garapena, interpretazioa eta zabalkundea

Udal honetako Tokiko Gobernu Batzarrak hartuko ditu deialdi hau garatzeko egoki irizitako ebazpenak.

Oinarri hauen interpretazioari buruzko edozein duda posible Herriko Etxe honetako Tokiko Gobernu Batzarrak ebaztuko du.

Deialdi hau argitaratuko da, ALHAOn eta, gainera, iragarkien oholtzan, ZUIN informazio orrian eta Udal honen web atarian (www.laudio.eus).

Oinarri hauek indarra hartuko dute, euren testua ALHAOn oso-osorik argitaratuta azaldu ostean eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 65.2 artikuluan ezarritako epea igarota dagoenean.

Laudio, 2016ko ekainaren 24a

Alkatea

JON IÑAKI URKIXO ORUETA